

## domekako kontuak

Mikel Aramendi

# Erramurik gabeko nekaldia

**B**idarteko erorketaren hamargarren urteurrena betetzen denean, Juan Priede, Orioko zinegotzia eta euskal militante sozialista estandar bat tiroz hilez egin dio «ongietorria», ETak PSEren Kongresu bereziari. Iragan asteetako aurrekinak kontuan hartuta, esperagarria ere bazen baina, ia beti bezala, kasuaren berezitasunek are onartezinagoa egin dute ekintza.

Kursaaleko emaitzak ikusita, hala ere, ez du ematen hilketak eragin zuzenik izan duenik biltzarkideen artean. Redondoren dimisio berantiar eta derrigortuaren ondorengo prozesu guztia, presio exogeno handien pean bilakatu da: PP eta bere inguruko hedabideen alderdikeria mutiria, batetik; Jaurlaritzakidiren hiruren keinu artatsuagoak bestetik... Horrek berak zaildu ditu, behar bada, sozialistak eta azken 9 hilabete hauetan sortu den indar harremana finkatu baino ez da egin.

P. Lopezen garaipen esperagarria, egundokoa izan gabe, argia izan da eta aurreko Kongresuan Redondok (R. Diezen aurka) lortutakoa baino aski zabala; datu honen irakurketa politikoa garrantzitsua da, euskal sozialisten bilakera nondik nora doan ikusteko. Totorikak, %40ra hurbilduz, emaitza ona eskuratu du, baina ez bere tesiak «oposiziotik», baliarazteko adinakoa. Polarizazioaren lazoan harrapatuta, bere garaian ISk zuen paperaren antzekoan geratu da Zabaleta. Partiduak baturik jarrai ote dezakeen ikustea geratzen da orain, epe ertainera. Hots, datorren urtebetean. Lopezi eskatuko zaion batasun-exekutiba eratu ez balitz ere, alderdia utziko ez duten asko daude «galtzaileen», artean. Baina



TXEMA FERNANDEZ / EFE  
Patxi Lopez da PSE-EEko idazkari nagusi berria.

### Zoriontsuak pobreak

Ai ene nola dauden diru(dunen) kontuak! Bi banketxe nagusietan purgak amaitu zirela zirudienean, BBVAren altxor ezkutuarena ezagutarazten da, BSCH eta Banestora, ai, zabaltzeko arrisku larriarekin; Cardenal fiskalak, ai, gortinaz estali nahi ditu petrolio enpresen itsusikeriak; Argentinako porru haziak garatzen ari dira edonon udaberrian eta, oh, Bacigalupok Pedro Jotarekin bazkaldu omen du. Nork ordainduko ote du kontua?

krisi hau «bere», arazoetakoa balitz bezala kudeatu duen PPK, hasi zuen bezala amaitu du saioa: disidenteei lekua eskainiz. Espero dituztelako.

#### Disoluzioaren amua

Orioko atentatuaren ondorio kolate-letako bat, Batasuna legez kanpora-

tzeko asmoa gartzea izan da. Sua ordea aspalditik zegoen piztuta eta propagandarako komenentziarena beste loturarik ez du egitasmoak ETaren jarduerarekin. Ezker abertzalea legez kanporatzea, PPren strategiaren upategian irakindako ateraldia da (agienez inork ez du aintzakotzat hartzen polizia-arduradun bakarra ere ez dela oraingoz agertu neurri horrek ETari aurre egiteko ekar lezakeen onura gores-ten).

Sozialisten lankidetzak, beharrezkoa baina instrumentala da horretarako: edonola ere goreneko epaitegi-etan amaitu beharreko neurria denez, oposizioko talde nagusiaren jarrera politikoa ezkorra balitz, segurua litzateke zatiketa, eta baliteke gaitzespena ere, haien erabakian. Eta orduan, irabazpide politikoa galera bilakatuko litzateke; eta noski, hori bai dela ezinezkoa.

Irabazpide politikoa arruntaren ikusmiran deliberatua delako dena: funtzionatuko balu, neu irabazle; bestela, zuek galtzaile. ETaren derrotaren erretolika, ordaintzeko modurik eta asmorik gabeko txeketa da. PPko arduradunek jakin badakite ezker abertzalea klandestinitaterako prestatzen ari dela ahal duen guztian, eta horraino heldutakoan dena askoz zailagoa izango dela denentzat. Pertsegituentzat nola pertsegiztaileentzat. Jada luzeegi doanaren luzapena, alegia.

Baina helburua ez da, ezinezkoa delako, ezker abertzalea Euskal Herritik desagerraraztea, PPren kompetentzia politikoa bizimodua zailtzea baizik. Batzku konturatzen hasi direla ematen du.

## gogoratu

Joxan Elozegi

DUELA 69 URTE

### ‘Euskadi Roja’

1933ko martxoaren 25ean argitaratu zen Donostian *Euskadi Roja* aldizkaria, Euskal Herriko komunista ofizialen inoizko agerkari osoena. Gipuzkoako astekari gisa azaldu bazen ere —«Alderdi Komunistaren lurralde albisteria, Sindikatu Iraultzaileen bozeramailea», zioen erdaraz haren bigarren izenburuak—, garbi dago *Euskadi Roja*, Gipuzkoako komunista ez ezik, Hego Euskal Herri osoko komunisten astekaria izan zela eta bokazio haren hatsek bultzaturik sortu zela. Eta hain zuzen ere, Euskadiko langile eta nekazari guztiei osasuna opa eginez kaleratu zen, bost mila aleko tirada euskal herrietako kale kantoi guztietan oiher gorria eginez berehala ahitzeko gomendioa gogoan hartuta. «*Euskadi Roja*—zioten komunistek 1933ko martxoan larrunbat hartan— euskal langile eta nekazarien nazio eskubideen defendatzaile gartsuena izango da, gudu-lubakietatik eta Nazioarteko Komunistak bere burkideei egokitu dizkion borroka guneetatik, euskal langi-

leak eta nekazariak autodeterminazio esku-bidearen aldeko borrokan gidatuko dituen abangoardia bulartsua izango den heinean».

Aldizkari garrantzitsua izan zen *Euskadi Roja*, betiko xuri eskuindarren buruhauste gorria, kalean eta plazan agerian jokatzen ausardia erakutsiko zuena. Euskal Herriko ezkerrean historiari buruz eginko aipametan, maiz askitan estali izan da garai hartako euskal komunisten garrantzia, komunistena alderdi txiki eta, modu batean, baztergarritzat, hartua izan baita besterik gabeko historiagile askoren artean. Eta txikitasan

haren erakusgarri, Euskadiko Alderdi Komunistak sortu baino hilabete lehenago, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan bostehun eta hirurogeita hiru afiliatu baino ez zirela ohartaraziko dizute zehatz-mehatz. Itxurazko txikitetasuna haren aitzakian, badi-rudi isilean eduki nahi izan dela ezker ideologiak Euskal Herrian eginko bide handia, egun ere bizirik dirauen topiko baten eskutik: «Kanpoko langileen eskutik etorri ziren Euskal Herrira ezker ideologia eta erakundeak, eta luze jo du ezkerrean eta bertako jendearen artean halako sintonia sortu arte».

Aldiz, «Euskadiren erri eta gizartetasun askatasunagatik irabioko-guda egin deigun» adierazi zuten behin eta berriro euskal komunistek *Euskadi Roja* astekarian. Askotan jasoan hartua izan ondoren, argia debekatu zioten astekariari 1934ko urriko iraultza saioaren ondoren, eta berriro ekin zion bideari 1935eko abenduan, sortu zenetik begi-bistan zeukan helburua, Euskadiko Alderdi Komunistak sortzea alegia, bete ondoren. Gerra garaian egunkari bihurtu bazen ere, faxistak Bizkaian sartu ondoren galdu zen betikoz, 1937ko irailean, hasierako *Euskadi Roja* hura, euskal komunista zintzoen agerkaria. Nekea du beti historia ukatuak, sekula ez genuke asmatuko nolako Euskal Herria genukeen zori gaitzoko gerra hura gabe. Geroko komunistek ere, ez zuten *Euskadi Roja* horren itsuskiro ukatuko, frankismoko urteetan eta gerokoetan egingo zuten bezala. «Orobazkuntzaleak» izango ziren behar bada, *Euskadi Roja* agerkarian euskaraz idatzitako mezu apurretan iradoki bezala.